

Desinformazioa

Zer egin albisteek informatu nahi ez dutenean

Hitzak, hitzak, hitzak, goizetik gauera telebistan, irratan, prentsan, Interneten. Gure garaiaren ezaugarria da etengabe albisteak jasotzea eta nola hala liseritzea. Baina prozesu horren ostean nekez gertatuko da gertakariak ulertzen lagunduko duen ezer. Hedabideen industria-egiturak ezinezko bihurtzen du informazioa, paradoxa badirudi ere.

GORKA BEREZIARTUA

HANDIA IZAN ZEN joan den irailaren 20an Espainiako *ABC* egunkariak argitaratua: “Bestalde, epaileak [Baltasar Garzoni buruz ari zen] baimendu egin zuen beste omenaldi bat, atzo Gipuzkoako Arralde herrian antolatutakoa. ETako presoan aldeko bazkaria eta manifestazioa egin zituzten”. Ez da Goenkaleren zale gartsua izan behar jakiteko Arralde ez dela existitzen telesailetik kanpo. Aski da euskalduna izatea, edo, kaze-taria izanez gero, herriaren izena Interneteko bilatzaile batean sartzea. Baina *ABC*koak ez zuen egin eta albisteak, irribarre artean, kilometroak egin zituen ahoz aho. Hamaika horrelako, normalean hainbeste algararako aukerarik ematen ez duten arren: Euskal Herria fokupean dagoelako, herritarra maiz jabetzen da eguerdiko informatiboaren aurrean, hedabideek distorsionatu egiten dituztela gertaerak. Baina lasai geratzen da, ziria sartu ez diotelakoan.

Eta, egia al da? Ba al dauka behar bezalako informaziorik?

Beharbada konparazio bat egin behar da erantzuna bilatzeko. Fokupean dagoen munduko beste txokoren bat aukeratu, eta proba egin. Har dezagun Iran, adibidez. Hilabete

honetan mundu guztiaren ahotan egon da pertsiarren herrialdean bi gune nuklear berri lanean ari direla. Hona hedabideek gaiari eskainitako titular batzuk: Frantziako *Libération*ek irailaren 24an “*Iran: deux sites nucléaires secrets à Téhéran, affirment les Moudjahidine*” (Iran: bi gune nuklear sekretu Teheranen, baieztatu dute Mujaidinek) eraman zuen goiburura; “*La ONU inspeccionará el día 25 la planta nuclear secreta iraní*” (NBek hilaren 25ean ikuskatuko du Irango instalazio nuklear sekretua) irakurri genuen urriaren

5ean Espainiako *El*

*País*en. Etxean,

Bilboko *El*

Correok honakoa

eman zuen argita-

ra irailaren 29an: “*Irán se enroca en su engaño al mundo*”

(Iran mundua engainatzen egoskortu da).

Titulararen azpiko albisteei begiratuta

irakurleak ondo-

rio batzuk atera

ditzake: Iranek

energia nuklearra

sortzeko guneak

dituela; gune horiek

isilpean egin dituz-

tela; hori arriskutsua

izan daitekeela mun-

duarentzat, arma nuklea-

rrak sortzeko aukera ere

eman diezaiokeelako...

Mezua, antzekoa berri

guztietan, ezaguna egin

zaio periodikoa esku

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA



Desinformazioaren ohiko tranpa batzuk

● Ezer ez argitaratzetik, eguneko albiste izatera:

Atzo ez genekien ezer. Gaur berriz, eguneko albiste da. Maiz gertatzen da hori, herrialde pobreei buruzko informazioekin batez ere. Aurtengo irailean telebistak Ginea Konakriko futbol zelai batean izandako tiroketa erakutsi zuen, ehunka pertsona hil zituztela esanez. Astebetez-edo jarraitu zuten hedabideek afera hori. Gero, desagertu egin zen. “Isiltasuna/azala” dinamikak azken urteetan ale ugari utzi dizkigu. Gogoratzen hegazti-gripeaz? Mingain urdinaz? Noizbehinka, bideoen bat grabatzen duenean-eta, telebistak erreskatatzen badu ere, nor gogoratzen da Osama Bin-Laden atxilotzeko asmoaz? Egunean eguneko-ari bakarrik begiratuta, denbora baten buruan atzera begiratu, eta amnesia sentsazioa izaten du informazioaren kontsumitzaileak dinamika horren erruz.

● Nork ordaindu, hark agindu:

“Ondo begiratuta, ikusiko dugu hedabideek saltzen dutena ez dela eduki informatiboa; beraiek audientziak saltzen dituzte, gu gara merkantzia publizitate agentzientzat” dio Pascual Serranok liburuko pasarte batean. Kazetariaren ustez, horrek eragin zuzena du edukien mailan. Jarraitzaileak edozein modutara lortzeko estrategiaren fruitu dira zenbait promozio ere: “Astekari batek udako txankleta batzuk oparitzen ditu, aldizkaria bera baino gehiago balio dutenak, horrela tirada zifra altuak lortzen dituelako iragarleei eskaintzeko”. Baina, noski, publizitatea ez da neutrala. Lerro editorialean eragiten du. Nekez ikusiko baituzu Coca Colaren iragarki bat, eta alboan enpresa horrek Kolonbiako sindikalistekin daukan jarrera oldarkorra azaltzen duen erreportaje bat.

artean duenari, han ez bada hemen, behin baino gehiagotan entzun baitu. Eta Iran urrun dagoenez, ezin du Arraldeko berriarekin bezala kalera irten eta bestelako iritzirik bilatu. Beraz, “Iran=arrisku nuklearra” ideia atxikiko du, ñabardurak ñabardura, egia izango delakoan.

Ez du Txente Rekondok *Rebelión* agerkari digital espainiarrean idatzitako artikulua irakurriko (“*Bombas y mentiras en torno a Irán*”; euskaraz, “Bonbak eta gezurrak Irani buruz”) eta ez du jakingo Iranek ohiko prozedurak erabiliz informatu ziola Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziari usina nuklear berrien sorreraz, sekreturik gabe; ez du jakiterik izango, albisteak albiste, ez dela frogatu guene nuklear horien eta arma nuklearren arte-

ko harremanik; eta, noski, ez dio galdetuko bere buruari zergatik den hain perlosa Iranek energia nuklearra edukitzea, Israelek, Indiak, Pakistanek edo AEBek lasai asko baldin badaukate —eta horiek badituzte arma nuklearrak ere—.

Goizeroko kafea: testuingururik gabe, konparatzeko datu gutxiarekin, tamaina txikiagian moztutako adabakien bidez jaso du informazioa prentsazaleak. Telebistak ez dio sakontasun handiagorik eskainiko, ezta irratia ere. Eta ondo informatuta dagoen ustean —oraingoa bai— ederki sartu diote ziria. Edo, sartu *digute*? *Sartzen* digute, akaso? Onartu beharko baietz, informazioaren gizartea ei den honetan berriak modu horretara jasotzera ohitu gara.

Ez da atzo goizeko kontua. Baina ez luke pasa beharko bihar gauetik aurrera.



Albisteak janari azkarra bezala

“Hemendik aurrera inork ez du esaterik izango ez zekienik”. Ignacio Ramonet *Le Monde Diplomatique*eko zuzendari ohiak aldarrikatzen dizu Pascual Serranoren *Desinformación. Cómo los medios ocultan el mundo* (Desinformazioa. Nola ostantzen

“Europak badauka konstituzioa”. Espainiako *El País* eta Herrialde Katalanetako *La Vanguardia* egunkariak lerroburu bera eman zuten argitara 2004ko ekainaren 19an. Bost urte beranduago, titularrak gezurra izaten segitzen du. Europako Itun Konstituzionalari buruz toki gehienetan zabaldutako informazioa, Pascual Serranoren aburuz, oso lerratuta egon zen. Nekez iritsi ziren itunaren aurkakoak telebistako albistegi nagusietara, irratietako buletineta eta egunkarien azaletara.

● Istiluak dira hiltzaileak, ez polizia:

Hizkera da kazetaritzaren gune irristakorrenetakoa, eta desinformazioaren zirrikitu gogokoenetakoa. Sarri, zaila da konturatzaren esaldi batek atzean gordetzen duenaz. "Lau pertsona hil ziren istilueta" leitzean, ez gara jabetzen norbaitek hil zituela pertsona horiek. "Gure ekonomia krisian dago" entzutean, askotan ez dugu galdetzen nork eragin duen krisi hori. "Gosea hazi egin da munduan" titularra ikustean, nekez hasiko gara gose hori zein motiborengatik hazi den galdezka. Horrela emanda, fenomeno naturalak ematen dute. Tankerako titularrak ez dira ezohikoak, ezta kasualitatez jarritakoak ere: ezkutaketa jokoa da, atzean dagoena lainopean estaltzea. Hedabideek egin beharko luketenaren aurkako, hain zuzen ere.

● Testuingurua? Zertarako?

Bideo-jokoa dirudi, baina benetan ari da gertatzen tiroketa, Palestinan, Iraken edo AEBetako institutu batean. Irudi ikusgarriak erredakziora iristen direnean, albiste bihurtzen dira ia beti. Geroz eta ohituago gaude testuingururik gabeko imajinak ikustera bata bestearen atzetik. Baina Ekialde Hurbileko irudi bortitzak ikusteagatik, ez gaude hango egoeraz hobeto informatuta. Batzuetan gainera, informazio falta eta irudiaren gizentzea maila absurduetara iristen da: ETB2 katean adibidez, 00:25 aldera, "El día en imágenes" (Eguna iruditzen) izeneko tarte bat dago egunero, hondoko sintonia batekin eta pantailako titular minimalistekin eguneko berriak azaltzen dituen, estetikaren mesedetan informazio eskaini gabe.

duten mundua hedabideek) liburuko hitzau-
rrean. Azken hamarkadan hedabideen agen-
dan egon diren gai garrantzi-
tsuenak xehetzen ditu lanak,
kontinentez kontinente, ohiko
informazio bideen ifrentzia era-
kutsiz. Ramoneten hitzaurreare-
kin segiz: "Informazioarekin
gertatzen ari da, janariarekin
gertatu zena. Herri batzuetan
egituraz pobreziazkoa zen elika-
duratik pasa zen ugaritasun ego-
erara. Produktu guztiak, urte
sasoi guztietan. Baina orain des-
kubritu dugu janari hori kutsa-
tuta dagoela pestizidekin eta
ongarri kimikoekin, eta horrek
heriotza klase ugari eragiten
duela, minbizia, bihotzekoa,
gizentasuna, eta abar. Horrek
sortu zuen konfiantza faltak
ekarri du orain egotea denda
ekologikoak, non produktu
organikoak baino ez diren sal-
tzen, pestizidarik eta gai kaltega-
rririk gabe ekoiztuak. Informa-
zioarekin gauza bera ari da
gertatzen. Lehen informazio gutxi zegoen,
orain gehiegizkoa da; baina informazio hori
kutsatuta dago gezur askoz, faltsukeria
askoz, ezkutaketa askoz, eta abar. Beraz,
geroz eta jende gehiagok nahi du informa-
zio ekologikoa eta bilatzen du 'informazio
organiko' esan dezakeguna, bereizgarri bate-
kin, dioena 'hau informazio organikoa da,
baiezkatua, faltsukeriarik gabe, gezurrik
gabe. Zure buru-osasuna kaltetzen ez duen
informazioa, manipulatzeko ez zaituena'".

Baina, elikagaia bezala informazioa ere,
gutxi aukeratzeko dute organiko. Munduan
kontsumitzen den gehiena janari azkarra da.
Kasu bat, deigarria, ikertua dagoelako, Bri-
tainia Handikoa: Nick Davies kazetariak *Flat*

Earth News (Mundu Lauko Berriak) liburu-
rako ikerketa bat egin zuen. Erresuma Batu-
ko bost egunkari aukeratu
zuten –*The Times, Telegraph, The*
Guardian, The Independent eta
Daily Mail– eta erakutsi zuen
argitaratutako berrien %80 biga-
rren eskuko informazioekin
osatuak zirela. Gehiago: albis-
teen %12 bakarrik argitaratu
zen gertakariak egiaztatuta.

Kazetari alferrak? Daviesek ez
du uste. Duela 20 urte baino lan
karga handiagoa dute ordea,
orduko behararen hirukoitza
egiten dute egun. Araza, han
bezala hemen, hedabideen ere-
duan dago. Labur esateko, lau
dira kazetaritzaren apokalsipia-
ren zaldunak: berriemailearen
gosea, korporazio handien
garaipena, iturrien heriotza eta
hedabideen arteko gerra.

Kazetariaren poltsiko urratuak

Jin, jan eta joan egiten du, azkar,
galderarik gabe, itzal bat pren-
tsaurrekotik prentsaurrekora. Gutxi kobratzen du, ez dago espezializatua, denboraz larririk dabil, aldi baterako kontratua dauka eta lana galtzeko beldur da. Sen arruntak kazetari ofizioa telebistako aurkezle famatuarekin lotzen badu ere –eta famaren tamainako soldatarekin–, bestelakoa da informazioaren profesional gehienek egunerokoa: aparretan dagoen elitea salbu, kazetaritza gaizki ordaindutako lana da. Labanaren ahoan bizi dira kazetariak: "2007ko urrian, Bartzelonan, parte hartu nuen fotokazetaritzari buruzko mahai-inguru batean. Nire tarte argazki batzuk erakusteko erabili nuen, benetakoak izan arren, egunkariaren erredakzioan manipulatu argitaratu zituztenak,



Goiko argazkian,
www.askatu.org
webgunean
jarritako irudia.
Arraldeko presoei
egin beharreko
omenaldia
egiazkotzat jo zuen
Espainiako ABC
egunkariak.
Egiaztatu gabeko
beste albiste bat,
azkar batean
argitara emana.



Pascual Serrano kazetaria (Valentzia, Herrialde Katalanak, 1964) goiko irudian. Aurren argitaratu du *Desinformación. Cómo los medios ocultan el mundo* liburua (Desinformazioa. Nola ostentzen duten mundua hedabideek). Mundu osoan azken urteetan eskaini den informazioa ikertu du, baita –batez ere– hedabide handiek ezkutatu dituzten berriak.

edo argazki-oin faltsuz” azaldu du Pascual Serranok liburuan. “Irudien egileak ez ziren manipulazio horien arduradun, baina beraien lana erabiltzen ari ziren audientzia engainatzeko. Nire buruari galdetzen nion zergatik ez genuen ezagutu haserretik edo protestarik, beraien lanak jasandako gehiegikeria eta gero. Argazkilarien erantzunak harri eta zur utzi ninduen. Lan kontratua edozer kostata ere mantendu behar zutela, lanpostu horretan jarraitu behar zutela saihestu ezinezko konpromiso ekonomikoengatik (hipotekak, haurren eskola, autoaren letrak, eta abar); eta tankerako argudioekin justifikatu nahi zuten beraien burua”. Azalera ateratako adibide bat besterik ez da; pala sakonago sartuz gero, nonahitik ateratzen dira kolore bereko zizareak. Serranok argi dauka: bateraezinak dira hedabideetako gaur egungo lan merkatua eta kalitate oneko edukiak. “Profesionalaren lan eskubideak ziurtatuta ez badaude –egonkortasuna barne–, ez da libre izango egia aldarrikatzeko”.

Eskuak informazioan, oinak finantzetan

Zer dela eta dauzkate langileek kontratu zimel horiek? Nagusiei galdetu. Gutxitan egiten den ariketa da hedabideak norenak diren galdetzea. Gauza asko esplikatzen ahal

Profesionalen lan baldintzek, hedabideen jabetzak, albiste iturrien kontzentrazioak eta hedabideen arteko lehiak oso zail egiten dute gaur egungo ereduarekin ondo informatuta egotea

da ordea, informazioaren hariak astintzen dituztenek oinak non dauzkaten ikusita. Merkatuen globalizazioarekin geroz eta ohikoago bihurtzen ari da hedabideen jabeak, komunikazio mundukoak izan ordez, talde ekonomiko handiak izatea. Eta horien helburu nagusia ez da eduki informatiboak sortzea.

Historiak erakusten du gauzak beti ez direla horrela izan. XIX. mendean, barbarako, Britainia Handiko langile-prentsak lan garrantzitsuak bete zuen beharginen kontzientzia sortzen. Eta gobernuek, matxinaden beldur, ez zeukaten agerkari horien ahoa ixterik. Mende horren amaieran eta hurrengoaren hasieran aldatu ziren gauzak, prentsaren industrializazioarekin: egunkari bat abian jartzeko 1.000 libera behar ziren 1837an Britainia Handian; 1867an berriz, 50.000; 1918an sortu zen *Sunday Pressek* bi milioi libera jarri zituen mahai gainean lehen urratsa ematerako. Informazioa negozio bihurtu zen.

Gaur egun hori bera ere aldatu egin da: hedabideen industrian erraldoien atzaparrak dabilta; oinak finantza munduan dituzte; eta geroz eta zailagoa da medio horien egokari buruzko egiazko datuak eskuratzea. Egunkari handi baten urteko emaitza hobete nahi dela? Aski da enpresa akziodun batek (banketxea, finantza erakundea, zernahi) publizitatea injeztatzea. Irabaziak izateko baino, enpresa taldeen irudia zaintzeko existitzen dira medio asko.

Agentziek barreagarri uzten dute Paretoaren printzipioa

Vilfredo Pareto ekonomialariak ikusi zuen, bere garaiko gizartea (XX. mende hasierakoa) bi taldetan banatzen zela: gutxi asko zeukaten, eta askok gutxi. Ehunekotan emanda, Paretoaren printzipioak dio biztanleriaren %20k ondasunen %80 daukala, eta alderantziz: %80ak ez duela eskura %20a besterik. Gaur egungo informazio iturriak nola banatuta dauden ikusita, gustura hartuko luke batek baino gehiagok banaketa bidegabe hori. Munduan harat-honat dabil-tzan berrien %80ren atzean lau baitaude. Ez %4. Lau bakarrik. Lau agentzia: AP, UPI, Reuters eta AFP. Horiak zehazten dute eguneroko albiste agendaren zati handi bat.

“Kontua ez da gure ideologia definitzea, interesatu behar zaizkigun gaiak zedarritzea baizik; eta hori ideologia inposatzea baino

gehiago da, errealitatea ordezkatzeko baita-
kar” dio Serranok. “Are gehiago, giza-harre-
manak asko gutxitu diren mundu batean”.

Informazio iturriena ez da hor bukatzen
ordea. Konturatu al zarete telebistan ematen
diren berrietan zenbat aldiz dagoen albiste-
aren jatorrian gaiarekin zuzenean interesatu-
tako norbait? Ez baita gauza bera inork zer-
bait ezkutatu nahi izatea eta argitaratzeko
gogoia edukitzea. Aurrenekoak nekez joko
du hedabide bateko erredakziora sekretu
kontari. Kazetariok joan beharko genuke
ordea, beraren bila. Horren orde, *ad hoc*
egindako adierazpenak dira albiste. Gertaka-
riak, geroz eta gutxiago.

Hedabideen arteko gerra

Frontera gaizki ordainduta doazen
soldaduak, kanpaina finantzatu-
duten aberatsak, liskarrean erabili-
tako armak... *Mass media* merka-
tua errepresentatzeko, gerra oso
metafora eraginkorra da: mundu
guztiari eragiten dio, zarata da
nagusia, gutxiak dakizkitez benetako
kausak, inori ez dio onik egiten.
Hedabide handiak elkarrekin
lehian ari badira ere, antz handia
dute. “Denek atera nahi diote zukua ustezko
albiste berari, sinetsita berria ateratzen ez
duena tropelaren atzetan geratuko dela”
Serranoren hitzetan. Horregatik, kazetaria-
ren ustez, munduan gauza asko gertatu
arren, leku bereko berriak eskaintzen dizki-
gute denek.

Hiram Johnson AEBetako politikariak
esaldi famatu bat utzi zuen I. Mundu Gerra-
ren atarian: “Gerra datorrenean, egia da
lehen biktima”. Beraz, hedabideen arteko
gerran, zenbat bider hiltzen da egia?

Jantzi kaskoa

Medio handien desinformaziorako joera egi-
turazko kontua da, ikusten denez. Aipatu
ditugun lau zaldun apokaliptikoe, eta beste

askok, etengabe erasotzen dituzte herrita-
rren garunak. Badira defendatzeko moduak,
ordea. Hona hedabideen mezuaren aurrean
kaskoa janzteko zazpi galdera, bertute kardi-
nalen tankerakoak:

- ✓ Informazioa kazetariak bilatutakoa da,
ala interesatutako parteren batek eskaintzen
du?
- ✓ Albisteak ba al du ematen dioten
garrantzia?
- ✓ Iturriak eta analistak: ondo identifikatu-
ta eta desberdinduta al daude biak?
- ✓ Informazioa egiaztatuta dago, ala parte
baten bertsioa besterik ez da?
- ✓ Gaiari buruz bildu diren iritziek ikus-
puntu diferenteak eskaintzen
dituzte ala interpretazio bera egiten
dute?
- ✓ Telebistako irudien kasuan,
sortzen dizkiguten emozioek ba al
dute oinarri arrazionalik?
- ✓ Ezagutzen al dugu albistearen
testuingurua?

Gainera, komeni da janari azka-
rra bezala irensten den informa-
zioaren aldean, *slow-fooda* aukera-
tzea: informatuta egotea ez da egunero
albiste guztiekin tripa nola-hala betetzea.
Begiratu behar zaio prestakuntzari, eta behin
mahaira eserita, behar bezalako denbora
eskaini. Pascual Serranok liburuaren amaie-
ran dioten moduan, saiatu behar dugu egune-
roko zurrumbilotik ateratzen, bestelako
informazio bideak erabiltzeko. Liburuetan
eta dokumentaletan dago albistegietan nekez
eskainiko dizutena: analisirako tresnak, tes-
tuingurua, benetako informazioa.

Noski, horrek ez du esan nahi hedabideak
baztertu behar direnik. Korporazio handien
esku ez daudenak eskura izatea osasunga-
rriagoa da ordea, burmuin guztientzat. Baina
tira, artikulu hau eskutan badaukazu, azken
hori ez dizut esplikatu behar, ezta? ■

**Lau agentzia (AP, UPI, Reuters
eta AFP) daude mundu osoan
harat-honat dabiltzan berrien
%80ren atzean. Horregatik,
eguneroko albiste
agendaren zati handi bat
baldintzatzen dute**